

Lehenik eta behin, bulego bat zabalduko dugu Durangon bertan. Aurrerago, , arrakastatsua dela eta jende asko etortzen dela ikusten badugu Durangaldeko beste herrietara zabalduko gara, beste herri batzuetan bulegoak zabalduz, adibidez, Amorebieta-Etxanon, Abadiñon, Elorrion edo Ermuan.

Bezero berriak eta “betiko” bezeroak mantentzeko, eskaintza bereziak proposatuko ditugu, esaterako, saioen prezioen beherapenak, antzinasunaren araberakoa, arazo ekonomikoak dituzten familiakoei prezioak murriztea.... Horrez gain, gure zerbitzuko ekintzak hobetzeko eta berritzeko, bezeroen iritziak eta ideiak entzuteko batzarrak antolatuko ditugu, baita ere, gure web gunean “bezeroen iruzkinak” deituko den atalean ideiak eta proposamenak egiteko aukera izango dute. Bezeroak etorkizuneko ekintza berriak egitean, sortzearen eta antolaketaren parte sentiarazi nahi ditugu.

Horretaz gain, familiekin bilerak izango ditugu, haiekin harreman estua sortzeko, konfiantzazko esparrua sortzeko. Bilera horietan, gurasoak eta familiak haien artean hitz egiteko eta tertulia sortzeko aukera izango dute, bakoitzaren haurren inguruko egoera azaleratuz, eta oso errealitate desberdinak egon daitezkeela besteei erakutsiz .

Aipatu beharra dago, adibidez irteerak egingo direnean gu bertara joango garela bezeroekin batera eta parte hartuko dugula, denon artean harreman sendoagoa sortzeko. Gainera, lehen egunetik hurbiltasuna, konfiantza, lasaitasuna/erosotasuna... transmititu nahi diegu, hain zuzen ere, lehen aipatutako bilera horietan transmititu nahi duguna.

Gure zerbitzua ikusgai egoteko, Durangoko jaietan txosna bat jarriko dugu, janaria eskaintzeko. Udalari ere, txikientzako parkea edo jarduerak jartzen direnean, aniztasuna duten haurrentzako jolasak antolatzea proposatuko diegu, eta gure izena duen karpa bat jarriko dugu.

Horretaz gain, Geu Be-rekin batera, Durangaldeko desgaitasun egunean parte hartuko genuke, gure zerbitzuari eta defendatzen ditugun balioei ikusgarritasuna emateko.

Geu Be-kin ere, hiru hilero argitaratzen duten aldizkarian atal bat izango genuke gure zerbitzuari buruzko informazioa aipatzeko, eta aurrerantzean, finantziario handiagoa dugunean, gure aldizkari propioa argitaratuko genuke.